

## La Salle Berrozpeko eta Elgoibar Ikastolako bina talderen proposamenak izango dira Kosmodisearen zortzigarren edizioaren ardatz

\* Etxeko hondakinak eraginkortasunez kudeatzea, eskolako jazarpena geldiaraztea, inguruan ditugun kulturak zabaltzea eta QR kodeak eraginkortasun handiagoz baliatzea izango dira Gipuzkoako ikasleek eta euren irakasleek datozen hila-beteetan jorratuko dituzten gaiak.

Lau proposamen oso interesgarri landuko dituzte Kosmodisearen zortzigarren edizioan, gazte gipuzkoarren kultura ekintzailearen baloreak sustatzeko xedearekin: etxeko hondakinak eraginkortasun handiagoz kudeatzea; gero eta gehiago gertatzen ari diren eskolako jazarpen kasuei aurre egitea; hurbil izan arren, ezagutzen ez ditugun kulturak hedatzea; eta gure hirien informazioa emateko, QR kodeen erabilera zabaltzea.

Kosmodisearen lehen fasean, "Ideia jasa" izenekoan, parte hartu duten 20 ikastetxeek egindako proposamenen arteko lau proposamen hauek hautatu dira. [La Salle Berrozpe](#) eta [Elgoibar ikastola](#) ikastetxeetako lau taldek egin dituzte proposamenak.

Kosmodisea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuak sustatutako programa da eta, Europako Funts Sozialarekin batera, % 50ean finantzatzen du. Gipuzkoako unibertsitatekin kanpoko beste hezkuntza-eremuetako jarduerak sustatzea du xede, talde lanaren bitartez eta IKTak modu trinkoan eta aurreratuan erabiliz. Kosmodisearen 2013-2014 edizioa irailaren hasieran jarri zen martxan eta urriaren erdialdean aurkeztutako proposamen guztiak aztertuta zeuden jada.

Proposamenak Kosmodisea ekimena taxutzen duten lau eremu tematikoren inguruan egin behar ziren: Berrikuntza zientifikoa eta Ingurumena; Berrikuntza hiritarra: parte-hartze aktiboa; Berrikuntza kultural-artistikoa eta Berrikuntza teknologikoa eta gizartea.

Lehen arloaren barruan kokatzen da [La Salle Berrozpe](#) ikastetxeko TOMATE taldeak proposatutako "Deserosotasun gutxiago eta birziklapen gehiago" ideia. Atez ateko hondakinen kudeaketaren inguruko eztabaidari heltzen dio eta sistema eraginkorra nola lortu eta egun sortzen diren arazoak nola konpondu aztertzen du.

Bigarren proposamena [Elgoibarko Ikastolako](#) Euskal Lemingak taldeak egindako "#STOPBULLYING" izeneko da. Eskoletan jazarpen kasuak gero eta gehiago direla, nerabeen artean batez ere, abiapuntu gisa hartu dute. Kasu horiek depresio, alkoholismo eta batzuetan baita suizidioan ere amaitzen direla eta egoera horiek sare sozialen bidez sarritan okerrera egiten dutela kontuan hartuta, guztiok batera arazo horri aurre egin diezaikegula uste dute.

[La Salle Berrozpe](#) ikastetxeko LSB taldeak, berriz, "Kultura ezezagunak zabaldu" izeneko lana proposatu du, Berrikuntzaren kultural-artistikoen alorrean. Inguruan ditugun baina ezezagunak zaizkigun kulturak hedatzeko deia egin dute. Horien ohiturak, janariak eta festa tipikoak ezagutu eta gure inguruan txertatzea.

Eta Berrikuntza teknologikoari eta gizarteari dagokionez, [Elgoibar Ikastolako](#) NATZOTZIPOTATZO taldeak "E hiria" izena jarri dio bere lan-proposamenari. QR kodeek atzeritarrei zein bertakoei gure hirien inguruko informazio baliotsua eskaintzen dietela aintzat hartuta, kode horien erabileran sakontzea proposatzen dute, herriko artista edo talde esanguratsuei buruzko informazio gehiago izateko eta, halaber, horien musika entzuteko.

## ETAPAK

“Ideia jasa” fasea amaituta, talde parte-hartzaileek Kosmodisea proiektuarekin harremanetan jarri dira jada. Horretarako, programa informatikoak deskargatu eta ezagutu dituzte lehenik, simulagailuaren bidez erabakiak hartu dituzte eta informazio gehigarria bilatu dute ideia irabazleen inguruan, ondoren Kosmoliciosen argitaratuz.

Entrenamendu prozesua garrantzitsua da, fase honetan “**Hasi eta Hazi**” ekimenarekin lanean hasten baitira eta, horrela, unitate didaktiko desberdinak baliatuz, proiektu bat bururaino eramateko beharrezko faseak ezagutzen dituzte. Hau da, ekintzailetzarako eta ideiak sortu, planifikatu, ebaluatu eta koordinatzeko faseak.

Trebakuntza etapa hau amaitu ondoren, Kosmodisearen fase nagusi desberdinen txanda iritsiko da. Maila horietan proiektu desberdinak landuko dituzte talde lanaren bitartez, eta teknologia desberdinak erabiliko dituzte, proiektu horietan soinu, irudi zein bideoak txertatuz.

Azaroaren lehen astelehenean “Ikono” etapari hasiera eman zaio eta talde parte-hartzaileek euren proiektua zergatik den beharrezkoa eta egokia definituko dute irudiak eta soinua erabiliz. Etapa hau, oro har, datorren abenduaren 20ra arte egongo da martxan. “Prestakuntza zikloetako” “Ikono planeta” fasearen epea egun honetan amaituko da: 2013ko abenduaren 5a.

Urtarrilaren 7tik otsailaren 21era, berriz, “Grapho” fasearen txanda izango da eta fase horretan proiektuaren plangintza, garapena eta gauzatzea egingo dira wikia erabiliz. Maila honetako ebaluazioa lan hau oinarri hartuta egingo da.

“Prestakuntza zikloetan”, 2013ko abenduaren 9a eta 2014ko urtarrilaren 22a bitartean bete ahal izango da “Grapho” planetaren fasea.

Azkenik, “Mito” etapak proiektua sustatzea eta zabaltzea du xede, bideo baten bidez garatuz. Azken etapa otsailaren 24tik apirilaren 11ra bitartean luzatuko da.

“Prestakuntza zikloetan”, honako hauek dira etapa hau osatzeko datak: urtarrilaren 23tik otsailaren 28ra.

KOSMODISEA programak, [Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuak](#) bultzatutakoak, ikasle gipuzkoarren balore ekintzaile nagusiak (sormena, autokonfiantza, ekimena, tolerantzia, ahalgina, analisirako gaitasuna, lidergoa, etab.) garatzea du xede. Horretarako, Kosmodisea irakasle nahiz ikasleek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erruz erabiltzean oinarritzen da modu estrategikoan. Tresna horiek (blogak, wikiak, audioa, irudia eta bideoa editatzeko programak, simulagailua, webquest metodologia, etab.) Kosmodisearen kultura zabala eraikitzeke bitartekoa osatzen dute.

Orain arte egin diren zazpi edizioetan, 9.800 ikasletik gora, 1.047 bat taldek eta 547 irakaslek baino gehiagok hartu dute parte Kosmodisea ekimenean.

Kosmodisearen webgunea:

<http://www.kosmodisea.net>

[info@kosmodisea.net](mailto:info@kosmodisea.net)

Tfnoa. : 900840842